

Donostia, 2022ko abuztuaren 3a

## UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIARI

Aitzole Araneta Zinkunegi Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaileak, Udaltzaren Organo Araudiko 90. eta 91. artikulua oinarri, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen zerga ordenantza aldatzeko ARAU PROPOSAMEN hau aurkezten du, Udaltzaren azter dadin.

### JUSTIFIKAZIOA

Donostiako arazo handienetako bat da jende askok ezin duela etxebizitza bat lortu, oso garestiak direlako. Faktore askok zehazten dute hiri bateko etxebizitzaren prezioa, eta horien artean dago etxebizitza turistikoak egotea.

Alde batetik, etxebizitza horiek askoz errentagarriagoak dira jabeentzat, turismo-erabilerarako alokatzen badira, iraupen luzeko alokairurako erabiliko balira baino, eta gainerako jabeek beren etxebizitzari prezio bat jartzeko orduan, eta ondorioz, jabe horiek lortu nahiko luketen prezioa areagotzen da. Bestalde, etxebizitza alokagarrien eskaintza murriztu egin da, eta horrek prezioak ere areagotzen ditu.

Beraz, uste dugu etxebizitza eskuratzea eta prezioei eustea erraztuko duten politikak sustatzen jarraitzeko beharrezkoa dela pisu horiekiko egiten den prezioa handitzea. Horregatik, proposatzen dugu % 10 areagotzea erabilera turistikoko etxebizitzak alokatzeko eta ohiko etxebizitzetan erabilera turistikoko logelak alokatzeko lizentziak eskuratzeko kostua.

Hori dela eta, Donostiako Udaltzari proposatzen dizkiogu honako ERABAKI hauek:

### LEHENA:

Establezimendu eta lokaletan jarduerak ireki eta kontrolatzeko zerbitzuak emateagatik tasak arautzen dituen Zerga Ordenantzaren ERANSKINA aldatzea, eta ZERGA OINARRIA honela uztea:

Aurrez lizentziarik behar ez duten jarduerak:

150 m <sup>2</sup> eta 500 m <sup>2</sup> bitarteko establezimenduak	275 €
--	-------

500 m <sup>2</sup> -tik gorako establezimenduak	2475,14 €
Ohiko etxebizitzetan erabilera turistikorako logelak alokatzea	99,83 €

Etxebizitzak erabilera turistikorako alokatzea:	
150 m <sup>2</sup> arteko establezimenduak	299,48 €
151 m <sup>2</sup> eta 350 m <sup>2</sup> erabilgarri bitarteko establezimenduak	499,13 €

Aurrez lizentzia izan beharra duten jarduerak:

50 m <sup>2</sup> arteko establezimenduak	55 €
51 m <sup>2</sup> eta 150 m <sup>2</sup> bitarteko establezimenduak	165,00 €
151 m <sup>2</sup> eta 500 m <sup>2</sup> bitarteko establezimenduak	275,00 €
500 m <sup>2</sup> -tik gorako establezimenduak	2475,14 €

## **BIGARRENA:**

2023ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean jarriko den erabaki hau izapidetzea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutako prozeduraren arabera. Era berean, erabakia behin-behinekoa izango dela joko da eta erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko bihurtuko dela.



Sinatua: Aitzole Araneta

*Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea*